

# Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko azaroaren 18a / IV. urtea / 153. zenbakia



Juan Gorriti, etxe aurrean duen erakustokian.

ALBERTO BARANDIARAN

Badira herri honetan artistak, galerian koadroak eta eskulturak paratzen dituztenak, egunkarietan barra-barra ateratzen direnak. Bada, gainera, beste artista mota, titulurik gabekoena. Horietako bat da Juan Gorriti oderiztarra. Remigio Mendiburu eskultorearekin izan zuen

## Gorriti, Mailopean artista

harremana zela medio sartu zen artearen munduan, eta duela urtebete pasatxo Arribeko bere etxe aurrean zabaldu zuen erakustokian artista gazteen lanak paratzen ditu urtean zehar. «Artista? Hori ez dakit zer den. Eguneroko bizitza da artea». Artista, Gorriti.

### Udazkeneko ilunabarrak

Udazkeneko ilunabarretan, zera argi dagoenean, eguzkiaren azken izpiak erabat desagertu baino lehentxeago, gauza guztiak giro irreal batek inguratutik agertzen dira Rohmer-en pelikulako izpi berdea bezain laburra den momentu batez, eta orduan galduta sentitzen zara zure betiko hirian, zorioneko metropoli foral honetan. Hotel baten neonezko hizki erraldoiak ikusten dituzu urrutian eta Dusseldorf, Paris, Filadelfia, Oslo, Belfast eta beste leku askotan egon zaitezkeela pentsatzen duzu argi magikoak toki guztiak

berdinduko bailituen. Hodei gorriskak tarteka pasatzen dira zure gainetik, baina urdina da nagusi, oso margolari gutxik kopia ahal izan duten urdin mota bat. Horrelako arratsetan ez duzu deus entzuten, kotxeak zure ondotik pasatzen dira beti bezala, baina motoreak mutu daude, edo hala iruditzen zaizu zuri behinik behin, faroen argiak —gidari batzuk ez dituzte oraindik piztu, gehienak konturatu ez direlako eta agian baten batek halogenoek momentuaren edertasuna ezabatu dezaketela uste duelako—. Ez duzu inor

### Metropoli forala

FELIPE RIUS



ezagutzen. Esango bazenu jendea dantzatzu bezala dabilela irakurleak parre egingo luke eta porroren bat erre duzula aurpegirotako lizuke. Beharbada ez da dantza bat, baina denak goizeko bederatzietan baino lasaiago dabilta. Amets bat bihurtzen da hiria udazkeneko ilunabar batzutan, lirikotasunarako minutu egokiak izaten dira hauek, eta hamabost pisutako eraikuntzez beteriko etorbideak erreserba natural bihurtzen dira zure begien aurrean ifundu arte. Ilundu ondoren ohartzen zara denak oihukatzen hasi direla,

kalean topatu duzun auzokoak —atariko komunitateko presidentea joan den hilabetetik— atzeratutako ordainketak orotarazi dizkizu modu txarrean eta arestian leku paradisiako bat zitudien etorbidea klaxonek eta mota guztietako zaratek bonbardatzen duten infernu bat bihurtzen da. Zure betiko hirian zaude, dudarik ez dago, eta berriro ere Kavafisen poema datorkizugogora. Enkantamendua luzatu nahi baduzu erremedio bakarra walkmana aterratzea eta Joe Jackson-en 'Nighth Music' entzutea da.

## GURE AUKERAK

### ANTZERKIA



**'Bazter utzitako panpinaren istorioa'** izenburuko antzezlan taularatuko du igande honetan, azaroak 20, Iruña Pequeño Teatro taldeak Etxalekun. Arratsaldeko 6.00etan hasita, herriko elizan izanen da.

**Teatrapo** antzerki taldeak 'Vagabundos' izeneko lana plazaratuko du gaur ostirala, azaroak 18, Tafallako Kultur Etxean. Kultur Patronatoak antolatuta, arratsaldeko 8.00etan hasiko da. Sarrerak 300 pezetan salduko dituzte.

**Melody Sisters** taldeak 'The dream of Marilyn' izeneko antzezlan taularatuko bihar larunbata, azaroak 19, Eugin. 'Udazkeneko Bira' programazioaren barruan, arratsaldeko 6.00etan hasiko da herriko pilotalekuan.

### ZINEMA



**'Hammet'** Win Wenders zuzendariaren pelikula eskainiko dute heldu den asteartean, azaroak 22, Iruñeko Olite zineman. Zine Klub Lux-ek zuzendari horri buruz antolatutako zikloaren barruan, arratsaldeko 8.00etan hasiko da. Sarrerak 350 pezetan salduko dituzte.

**'La cucaracha'** izenburuko pelikula botako dute heldu den aste ostegunean, hilak 24, Iruñeko Olite zineman. Nafar Ate-neoak Zinema Mexikarrari buruz antolatu duen zikloaren barruan, arratsaldeko 8.00etan hasiko da.

### BERTSO SAIOAK



**Andoni Egaña** eta Sebastian Lizaso bertsolariak ariko dira gaur ostirala, hilak 18, Donezteben. Libreko saioa izanen da, Feri plazan, eguerdian hasita.

**Estitxu Arozena**, Maialen Lujanbio eta Unai Iturriaga bertsolarien saioa izanen da bihar larunbata, hilak 19, Etxarri-Arnatzen. Bertso afari moduan antolatuta, 21.00etan hasiko da.

### BESTELAKOAK



**Herri Meza** euskaraz izanen da bihar larunbata, azaroak 19, Iruñean. Urtero hiriko eliza bat aukeratzeko dute ospakizun honetarako eta aurtengo Donibane auzoko San Alberto parrokiari egokitu zaio. 20.00etan hasiko da.

**'Iruñeko hizkuntzak'** gaiari buruz mintzatuko da Jose Maria Jimeno Jurio historiagilea Iruñean heldu den asteartean, azaroak 22. Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatuta, arratsaldeko 7.30etan hasiko da, Hizkuntz Eskolan.

## NAFAR KRONIKA

GAIZKA ARANGUREN

### Gose naiz

● 'Basapizti anitzek, askatasuna galduz gero, nahiago izaten dute goseak hiltzea'. Hala gertatu zitzaizkion nire aitak Ibañeta aldean harriak eta bertzelako xomorroak ahotan jarri nizkien arren, ez zuten ezer irentsi nahi izan. Ni, zortzi urteko mukizu ilehoria

kaiola bertzerik ez zen. Hirugarrenari, zizarekak, eltxoak, matxinsaltoak, arrak... denetarik bota nion bainerara. Ura zikintzea bertzerik ez nuen lortu. 24 orduren buruan, tripez gora, hilik zetzan uretan.

Nerabatasunean murgilduta, 16 urte nituela eta ilea ilunduagoa, negel bila abaiatu gi-

Pizti haien gose grebak zirikusirik izan zuten hausnarketa horri ekin niezaion. Gose greba. Nork bere buruaren kontrako bortizkeria. Basapizti horien askatasun instintoa gainbizitzekoarena baino indartsuagoa da... edo, behar bada, 'askatasuna' eta 'gainbizi-pena' kontzeptuen arteko ez-



nintzen.

Hamabi urte nituela, metro t'erdiko altuera lortu gabe oraino, ilea ilunduta, arrantzale sutsua nintzela eta, hiru amuarra in ekarri genituen Ezka ibaitik Erronkariko etxera. Baineran sartu eta orduak eman nituen haiei so. Gaua pasa eta hurrengo egunean, baineratik kanpo, hilik aurkitu genituen bi. Gauean zehar jauzi eta bainera utzi zuten. Ez zen bere buruaz bertze egiteko jauzia izan. Haiendako, bainera,

nen Ultzama aldera. Negelak beti ziren aste zehatz batzuetako bazkari berezia. Urte hartan negel haietako bat bizirik gorde nahi izan nuen. Baineran alegia eta ez urdailean. Hark ere ez zituen ahora ematen nizkion xomorroak maite. Iruñeko etxeko iturriaren urak eta egun t'erdia iraun zuen. Garrai hartan, basapizti guzti hauek bere bizileku askeetan ederragoak zirela pentsatzen hasi nintzen.

berdintasunaren berririk ez dute.

Zorionez, intsumituek eta preso politiko guztiak orohar, bi kontzeptu horien arteko diferentzia zein den badakite. Baina basapiztien izpirituarekin bat egiten dutenean; hau da, Gose Grebari ekiten diotenean, negel eta arrubio aurpegi eta gorputzaren antza hartzen dutela ez dit inork ukatuko. Haiena da Aymeric Picaud-ek definitzen zuen euskal basapiztien ohorea.

## ASTEKO PERTSONAIK



**Satur Leoz**  
Kazetaria



**Alfredo Saenz**  
Banestoko presidentea

Satur Leoz kazetari altsasuarrak irabazi du aurtengo San Fermin Sariaren idatzitako atala 'Ciceros sanfermineros' izeneko artikularekin. Ustekabea izan zela aitortu zuen berak, ez zuela horrelakorik espero, baina, noski, pozik agertu zen, 250.000 pezeta eskuratu baititu. 'Deia' egunkariko Nafarroako arduradunak lanean zegoela jaso zuen sariaren berri, eta antzera gertatu zitzaion iratiaren ataleko saria irabazi duen kazetariari, Onda Ceroko Idoia Altadilli hain zuzen. Bideoaren atalean, berriz, Iruñeko Enrique Urdanozek irabazi du, 'Vida gracias a la muerte' lanarengatik. 'Le Monde' egunkariko Francis Marmande kazetariak ere jaso du beste sari bat, epaimahaiak aukeratutakoa, 'La corrida des gueux' izeneko artikularengatik.

Navarra Foro XXI Diario de Navarra eta NH Hoteles enpresak sortutako eztabaida edo mintzaldian izan da aste honetan Alfredo Saenz Banestoko presidentea. Langabeziaren arazoa, egungo egoera nahasia, Administrazioen jokaera ezberdinak eta Europako beste nazio batzuetan gertatzen ari denari buruz mintzatu zen Saenz, beste gauza batzuren artean. Hori bai, Mario Conderen kontra jarritako keireilari buruzko azalpenak ez zituen eman. Enpresa ezberdinetako administrazio kontseiluek «gardentasunez» jokatu behar dutela zioen, «egoera nahasi honetan ikasi behar baitugu moldatzen, bestela jai dugu». Nafarroako agintari, enpresari eta beste pertsonai ugari bildu ziren El Toro jatetxean Saenzen hitzak entzuteko.

## AHAZTU GABE!

### MENDI EKITALDIK



**Mendi irteerak**, abenturazko proiektioak eta mendiko ekitaldiei buruzko ikastaroak antolatu dituzte Iruñeko talde ezberdinek datozen egunetarako. Gaur ostiralean, azaroak 18, 'India basatia' izenburuko diapositiba emanaldia izanen da Nafarroa Kirol Elkartek antolatuta. Alfonso Senosiain abenturazaleak zuzendua, arratsaldeko 8.00etan hasiko da, Elkarteko egoitzan. Ordu horretan bertan, eta Azkarrenak Iruñeko talde berriak antolatuta, Nafar Pinioei buruzko filmina emanaldia izanen da Zaldiko Maldiko elkartearen. Biharko, berriz, mendi irteera prestatu du Azkarrenak, Burdindogi mendira. Goizeko 8.00etan aterata eta 3.00etarako bueltatuko dira, eta bertan partehartzeko baldintza bakarra euskalduna izatea da. Igandean, Arrieta-Garralda ezagutzeko mendi ibilaldia antolatu du Nafarroa Kirol Elkartek, goizean aterata eta arratsean itzultzeko.

## jenero xumekoak

### Agurra

Berriro neska abeslari eta dantzari hartaz oroitu zen, eta hark erakutsitako kanta baten doinua abestu zuen ahapetik. Berriro bizi zuen aspaldiko bizitza hura, baina gauza arrunt eta inpersonal baten gisara, bere bizitzaren oroipen argazkiei beste edozeinen bizitzako argazki liburukoak balira bezala begiratu. Eta jenero xumeko liburu hura betiko hertsu zuen.

ELIAS SARASA - ERRO

## ADI! EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, asteleheneetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

## XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

## ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

## KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztiaren gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



## HERRIZ BERRI



### Etxaleku

### Navarriako iturritik

Juan Kruz Lakasta



### Ing

# Igandean, adinekoen eguna

ETXALEKU

Imozko Tuxuri taldeak, Euskara Zerbitzuarekin batera, adineko edo jubilatuaren eguna antolatu du igande honetarako, hilaren 20rako, Etxalekun. Aspaldiko asmoa, beraz, asteburu honetan gauzatuko da. Egitaraua eguerdian hasiko da, meza nagusiarekin, eta ateratzean Arrotxapeako abesbetza ariko da kantari. Ondoren hamaiketako izango da, eta 14.30etan bazkaria, Etxalekuko ostatuan.

Jarraian bertso saioa izanen da Joxe Fermin Argiñarena errazkindarra eta Bautista Perurena leitzarraren eskutik, eta horren ondoren omenaldia egingo zaie bailarako gizon eta emakumezko zaharrenei. Arratsaldean luzatuko den besta bukatu arte, Leitzako trikitilari bikote batek giroa berotuko du, dantza saioaren bat egin nahi duenarentzat aukera ezin hobea eskainiz.

Ez da izango, baina, adinduendako aukera bakarra, haurrak ere kontuan hartu nahi izan



Jubilatuaren eguna ospatzea aspaldiko asmoa zen Imotzen.

dira eta. Egun bereko arratsaldeko 5.30etan, Etxalekuko Elizan, Iruña Antzerki Txiki taldeak bere lan ikusgarria eskainiko du. Gazte, heldu eta gurasoek ere ikusteko aukera izanen dute.

Bestalde, eta bi bailaretako bertsozaleei zuzendurik, hil honen 26an, gaueko 10etan, Berueteako ostatuan bertso afaria izanen da, Bittor Elizagoien eta Manolo Arozena bertsolariekin.

Bertara joan nahi duenak txartela hartu behar du alde zurretik, 50 30 12 edo 50 30 13 telefonotara deituz asteazkena baino lehen. Saioa IKAK eta Euskara Zerbitzuak antolatu dute.

Korrika, arinaketa edota lasterka egitea esatea, nonbait, arruntzia zela eta, Coca-Colak eta On Mickyk footing-a asmatu zuten aspaldian. Estreinak o '-ing' horrek lortutako arrakastaren hitzalpean haren gibeletik '-ing' andana helarazi dute gogana. Goming, rafting, trekking... Kirol bortitzak maite ez dituztenentzat ere '-ing' aproposa asmatu dute, zaping-a. Mundu honetako biztanle orok '-ing' bana behar ei dugu, askok iraunbizing-arekin aski badute ere. Jartzazu '-ing' bat zure bizitzan eta zoriontsua izanen zara!

Gauzak horrela, koadrilako filosofoak —adi, Eduardo Gil Beraren liburuak irakurtzen ditut!—, halabeharrez '-ing' bat hautatu behar bazuen, '-ing' hori berak asmatuko zuela esa zidan joan den larunbateko goizeko ordu txikietan, azken ta-

### Izura

## Barnealdeko gazteen bilgunea laster irekiko da Nafarroa Beherean

LUTXI FOURCADE / BAIONA

Euskaldun Gazteria, barnealdeko gazteen elkarteak bere besta ospatu du joan den ostiralean Izuran. Gazte ugari bildu zen antolatutako ekitaldietan, 350 lagunek parte hartu baitute aratsaldeko eztabaidetan, ondoko ikusgarrian edo gaueko kontzertuan.

Gazteak bildu eta antolatu nahi dituen taldeak bere poztasuna adierazi zuen, gazte anitz etorri zirelako eta eztabaida gehienetan gazteen bilgunea eratu beharra azpimarratu zutelako partaideek. Aipatutako hutsa betetzea helburutzat finkatu du Euskaldun Gazteriak, datorren urtarriletik Duzunartzen irekiko den Etxartearen ateak zabalduz.

Euskaldun Gazteriaren izena aspalditik ezaguna da barnealdean, Frantziako MRJC Nekazal Girixtino Gazteen Mugimenduarekin lotua den euskal taldeak ekitaldi franko eraman baititu hamar urte honetan. Urtero urtekari berezia plazaratzeaz gain, gazteak ezagutzen dituzten arazoez axolatzen da taldea, lehentasuna emanez barne aldean plantatzen diren arazoei.

Euskal Herriko Langileen Elkartearekin bat egin zuen azken

bi udetan sasoiari buruzko informazioa emateko.

Beste urrats batera pasatzea erabaki dute elkarteak duela sei hilabete, barnealdeko bilgunea bat irekitzeko asmoa plazaratuz, gazteek ukan dezaten tokia elkarteko. Bere beharra zabaldu ondoren, Gauri eta Baigorri parrokiak Duzunartzen zuten etxea alokatzea proposatu zioten Euskaldun Gazteriari. Etxartearen izeneko bilgunea datorren urtarriletik ireki nahi dute Euskaldun Gazteriako kideek. Bulegoa eta bilertarako gela bereziak eskainiko dizkie etxeak nahi duten gazte orori. Bere xede berria aurkeztu nahi zuen taldeak joan den ostiralean Izuran antolatutako bestakari. Holako tresna izanki, proiektu bat muntatu nahi izan zutelako adierazi zuten, dinamika berri baten sortarazteko.

Azken hilabeteotan taldea bildu ziren gazte batzuk eta proiektuaren helburu nagusiak aurkeztu zituzten ostiralean. Laborantzan plantatzearen arazoak nabarmendu ziren, baina baikortasuna nabari zen geroari buruz, gazteak poliki instalatzen baitira barnealdeko etxaldeen artean. Intersio profesionala funtsezko kezka zela ere azpimarratu zuten.

### Altsasu

## Euskararen Astea heldu den astean zehar

AMAIA AMILIBIA / ALTSASU

Altsasuko argazki zaharren erakusketa, euskararen historia eta gaur egungo egoerari buruzko hitzaldia, haur eta helduentzako bideo emanaldiak, liburuen azoka eta beste ekintzak izango ditugu Kima Taldeak eta Altsasuko udalaren Euskara Batzordeak antolatu duten euskararen astearen barruan, heldu den astean. Astelehenean hasi eta igandea arte iraungo duen euskararen astea, hain zuzen.

Iaz arrakastatsua gertatu zen eta aurten ere ez da gutxiago izango, ekintza eta zeregin ugari antolatu baitituzte hurrengo astetako. Datorren astelehenean hasi eta igandea bitarte, arratsaldeko 7etatik 9etara Gure Etxean zabalik egonen da argazki zaharren erakusketa, 60ko hamarkadatik atzerako argazkiak biltzen dituen. Badiara hilabete batzuk antolatzaileek Altsasuko bilketa kanpainari ekin ziotela; hasieran argazki gutxi heldu ziren, baina denborarekin, altsasuarren erantzun eta parte hartze ezin hobeari esker, antzinako argazki anitz ikusgai egonen dira erakusketan.

Bestalde, egunero zereginen bat izango da hurrengo astean zehar. Asteartean euskarari bu-

ruzko hitzaldi bat izango da, 'Euskararen egungo egoera historiari begira' izenburuarekin, arratsaldeko 8etan Gure Etxean. Asteazken arratsaldean Altsasuko ludotekan haurrentzako bideo emanaldia antolatu dute: izenburua 'Mehirkada' izango da. Ostegunean, berriz, helduentzako txanda izango da, arratsaldeko 7etan, ludotekan hau ere, 'Historiaren gibelean' filma ikusgai izanen baita. Ostiralean Zubeztia Elkartearen Bertso Afaria izango da, arratsaldeko 9etan. Lau bertsolari gazte hartuko dute parte: Estitu Arozena, Manu Gomez, Bittor Elizagoien eta Jose Manuel Leiza, hain zuzen. Afariak 2.000 pezeta balio du, eta ikaslea edo langabea izanez gero 1.000. Izena emateko Las Vegas tabernara joan behar da. Larunbatean liburuen azokari hasiera emango zaio arratsaldeko 7etan, Gure Etxean. Arratsaldeko 5.30etan hurrek ipuina entzuteko tenorea izango dute, ludotekan. Igandean euskararen asteari bukaera ponpoxa emango zaio. Goizean bai erakusketa bai liburuen azoka zabalik egongo dira 11etatik eguerdiko ordu biak arte, eta arratsaldeko 8etan Maskarada taldeak 'Kontrabaja' izenburuko antzezlan taularatuko du.



bernan sartu nahian genbiltzala. Sartu ginenean taberna lepo beteta zegoen. Kostata, baina azkenean Euskal-Cao edale eta Zumoguzkizale koadrila baten alboan txokotxo bat lortu genuen barran. Tirantedun elastikorik ez zeramaten, baina haien gorpuzkeragatik saskibaloio jokariak besterik ezin ziren izan.

Zorigaitzeko une horretan, filosofoari bere '-ing-a' zein izanen zen bururatu zitzaion. «Elkarring ariko naiz ni, gatazkak konpontzen». Eta alboan gatazkarik ez zuenez, gatazka berak sortzea erabaki zuen. Horretarako alboko gizontzarretariko bati ardo katxia gainera botatzion. Honek —eta bere lau lagun gizakoteek— buelta eman zutenean, bera 'elkarring' hasi zen. «Gora Jonan Fernandez! Gora distentsioa! Gora elkarriketa!». Morroskoen erantzuna laburragoa izan zen. «Pailazo hutsa zara zu!». Jipioa saihestezina zirudienelarik, filosofoak inork inoiz botatuko esaldirik jakintsuena bota zuen. «Pailazo bat naizela esatea onartzen dizut, baina zein moetakoa, Txirri, Mirri, Txiribiton, Fofu, Fofito...?». Hiru puntuko jokaldia. Gu biok barrezka, erraldoiak aho bete hortz, eta jipoirik ez. Gora elkarring!



ALBERTO BARANDIARAN / ARRIBE

Mailope Nafarroako bazter ikusgarrietakoa da, batez ere garai honetan. Arreak eta nabarrak non-nahi dira nagusi, eta ez da zaila pentsatzea Azpirotz gainetik igaroko den autobidearen zatiak gidari asko txoratuko dituela. Sikiera, autobidea ez delako handik ikusiko. Garai ederrena dirudi, ezinbestez, honek, baina Juanito Gorritik gero erakutsiko digu gure atrebentzia: denak dira ederrak. «Neguan dena ikusten duzu larru hutsean, gozada bat; udaberrian hostoak hasten dira, eta txoriak, odola bizi-bizian; udan jendea lanean ari da etengabe eta fruituak ikusten dira arboletan; eta gero, udazkenean, kolore ikuskizuna izugarria da. Hemen bizi naizelako ikusten dut horrela».

Ikusten dira, ikusi ere, Juanito Gorritiren Arribeko etxean zintzilik dauden txotxongiloak, Batzarre izeneko baserrian dena ikusgai dagoelako. Ikusgai dago etxea bera, ikusgai dago etxe aurrean duela urtebete zabaldu zuen erakustokia, ikusgai... Oilarak oldartzen zaizkizu, baina, sarreran. «Gaiptoak dituk» aipatzen du Jonek, Juanitoren semeak, bera bezala lana etxean egiten duenak.

Euskal Telebistako talde bat grabatzen ari dela eta, egun osoa aritu da kazetariekin bueltaka, baina, egongelako tximiniaren aurrean esertzen garenean, hitz egin baino ez du egiten. «Nik ez dakit idazten, eta kosta egiten

zait hitzekin espresatzea nahi dudana», dio behin baino gehiagotan. Hala ere, galderek ez dute askotarako balio, ongi asko azaltzen baitu jakin nahi duguna.

Oderitzen jaioa, Betelura heldu zen txikitan, eta berehala konaturatu zen berarendako inguru hori besterik ez zela izango. Egurra betidanik gogoan, 13 urterekin joan zen Iruñera ikastera, baina han ultzera bat baino ez zuen harrapatu. «Ez nintzen kapaza ikasteko, eta nerbioak jota atera nintzen». Ospitalean egon zen ingresaturik. Hortaz, hiriburura joan eta bi urtera lanbide bat ikasteko Arribera itzuli, eta baserriko tresnak konpontzen hasi zen. Handik Segurara, Tolosara, eta Iparraldera joan zen azkenean, ikasteko gogoak bultzatuta. «Egurra nuen nik ttiki-ttikitandik buruan. Eta eskolan ezin

nuenez ikasi, tailerretan ikasi nuen, denei galdezka eta, lotsarik gabe». Iparraldean hamabi urtez egon zen, hainbat tailerretan, baina azkenean heldu omen zitzaion Mailopera itzultzeko garaia. «Beti izan dut urdaila gaizki, eta azkenean operatu egin ninduten, eta medikuak esan zidan ezin nuela lan gogorrik egin. Eta buruan egurra besterik ez nuenez, enpleatu nintzen Donibane-Lohizuneko errestiturazio tailer batean. Hor eman nituen hiru urte, eta horiek izugarriak izan ziren. Eta denetatik ikasia nuenez, esan nion nere buruari: 'Beno, Gorriti, joan hadi etxera!'. Ezkondu berria nintzen, eta seme batekin etorri ginen Betelura. Han hasi ginen etxe ttiki batean lanean, errestituradore».

Lan bila hasi zen, horrela, etxe handietan, baserriko tresnak eta


konpontzeko, eta garai hartan ezagutu zuen berarendako izugarriko garrantzia izango zuen Remigio Mendiburu Hondarribiko eskultorea, Intzara joanda bertan laketua baitzen, Aralarrekin bera ere txoratuta. «Artista hori neretzako zen... haur bati autografoak eta eskatzeko esaten zaien moduan, neretzat Mendiburu zen halakoa. Eta joan nintzen egun batean berarengana, eta egurra nola lantzen zuen ikusi ondoren gelditu nintzen berarekin txoratuta. Gonbidatu ninduen bere tailerrera gero, eta segituan izan zen harremana. Eta harremana izan zen, nola esango nizuke..., oso berezia. Artista batek ofizioari ez dio hainbeste garrantzi ematen, ematen dio formari. Adibidez, artista batek ikusten badu kotxe pila, zabortegi bat, ikusten du eskultura edo

margo bat, baina ofizioa duenak materiala ikusten du, kotxeak eta. Orduan elkartu ginen artista bat eta zurgin bat, eta itsasoko eta mendiko bat, arrantzale bat eta artzain bat. Harreman handia lotu genuen. Eta nik esaten nion: «Remigio, baina nola lan egiten duzu egur horiekin?». Lana fagoarekin egiten baitzuen, eta egurra jada pasatuta zegoen. Eta fagoak behar du bere garaia botatzeko, bere garaia mozteko... baina hark ikusten zuen forma bezala. Orduan esan nion fagoa oso berezia dela, eta moztu egin behar dela azaroko ilberrian, adinakoan, eta bere fagoak ez zuela iraupenik. Itsasokoa izanik ez zuen ezagutzen naturaren indarra, eta orduan sartu zen artzainen mundu honetan. Gero egin zituen ilargiaren faseak eskulturan, oso polita. Eta Remigiorekin harremana egin nuenez, gero Oteiza ere etorri zen, Sigfrido Koch...


Berehala Arriben bertan ireki zuen Batzarre bere tailerrera artista ugari heldu ziren, eta denekin harremana egin zuen Gorritik. Beti ikasteko prest, artisten artean langilea zena artista ere bilakatu zen, eta tresna edo etxerako altzariak egitetik egunero ikusten zituen formei itxura konkretua ematera iragan zen. Hala ere, bera ez dela artista dio. «Artista zer den ere nik ez dakit. Buruan daukagu beti galeriako artea, baina hori ez da artea. Arte da eguneroko bizitza. Intsumisoen munduan kristoren artea dago, porru-patakat egiten due-

## «Denok dugu artista bat barruan»

**M**aillopean, Aralarren itzalpean, Araitz bailaran. Arriben, bertako Batzarre baserrian. Juan Gorriti, Juanito, eta bere tailerra, bere erakustokia. Bere oiloak, bere semea eta emaztea, bere altzariak, bere pinturak eta eskulturak. Bere filosofia, artea ikusteko bere modua, bizitzeko bere era, lan egiteko bere gogoia. Artzaina eta baserritarra. Artista? Langile baikorra, gazteekin txoratua. Arriben. Maillopean.



Juan Gorriti, Arribeko etxean.

Gorriti,  Maillopean artista

na, baserritar edo artzaina, ez al da artista? Lurra lantzeko tresna horiek egin dituenak ez du egin artista gisa, baina forma bat da, eta oso herrikoa da. Nik ez dut nere burua jotzen artistatzat. Nere burua da oso herrikoa. Bakarrik egiten dut pentsamenduei forma eman». Hortik, benetako artista herria dela azpimarratzen du beti. «Galeria handi batean bizi gara eta denok gara artista. Gertatzen dena da batzuek beti dutela bonbila piztuta, eta gauzatzen dute beren ofizioarekin beren ideia. Baina ez al da artista egunero lanean torlojuak jartzen ari den langilea? Gero etorriko da pintorea edo eskultorea eta hori gauzatuko du bere lanetan, baina herria ez baldin badago, ez dago arterik».




Etxe aurrean zabaldu duen erakustokian era guztietako erakusketak ikusten ahal dira, baina hemendik aurrera gazteen lana, «indarra» erakutsi nahi duela dio. ALBERTO BARANDIARAN

**A**rtista zer den ere nik ez dakit. Buruan daukagu beti gale-riako artea, baina hori ez da artea. Artea da eguneroko bizitza».

ezagutzen bakarrik hizkuntze-kin, baina formekin ere eta eguneroko bizitzak badu forma». Ederki zabaldu zituen bere ateak, eta duela urtebete inguru zabaldu zuen etxe aurreko erakustokia. Bigarren eskuko materialekin altxatu zuen toki eder horretan denek dute kabida, eta beti zabalik dago. «Aralar, Maillope, galeria handi bat da eta hemengo kultura baserri eta artzainena denez, erabaki nuen zeozter egitea, eta, ilusio handiz, hau egin nuen».

Baikorra da Juanito. Baikorra munduarekin, etorkizunarekin, Euskal Herriarekin. Lana bukatzen duen bakoitzean itxafueroa botatzen du herrian, eta hori, «barruan sentitzen dudana emozioarengatik da», berak dioenez. Batzuetan eroa dela ere esaten diote, txantxetan, baina berak normala eta eroa izatearen arteko deberdintasuna zein den ez dakiela azpimarratu du.

«Zer da normala izatea? Nik ez dakit. Ni goizeko seietan hasten naiz egunero lanean, eta gauz ohera sartzen naizenean beti desiatzen nago egunsentia noiz etorriko den, berriro lanean hasteko. Hori da aberasgarria, suertea dugu urtean zehar oportetean gaudelako». Horregatik baikortasuna. «Ez naiz pesimista, Jorge Oteiza be-



zala. Berak dio: 'Herri hau bukatu da!' Baina gazteak beti jaioko dira, eta gazteei bideak zabaldu behar zaizkie». Baikortasun hori lotuta dago gazteengan duen konfiantza. Intsumisioa askotan ateratzen da solasaldian, eta gazteek duten indarrari esker «herri hau aurrera aterako da»

**E**gunero jaiotzen da bizitza, eta ez udaberriari bakarrik. Hain zuzen, neguko loreak dira bereziki-  
nak».

dio. Duela egun gutxi bailaran bertan egin zen rock jaialdian ezagutu zituen hainbat musikari gazte, eta bere etxearen aurrean dagoen erakustokira hemendik aurrera gazteak ekarri nahi dituela dio. Beti ere erreleboa prest ikusten du. «Gazte asko dago

kristoren gogoarekin, eta herria aurrera eramateko gazteen bidez egin behar da. Egunero jaiotzen da bizitza, eta ez udaberriari bakarrik. Hain zuzen, neguko loreak berezikiak dira. Gainera, ezin duzu zure bizitzako lan guztiak aurrean jarri herri baten ispilu gisa, etorriko dira-eta besteak.

Oteiza hor dago, baina etorriko dira akaso beste hamar Oteiza. Laboak izugarriko lana egin du herri honen alde, eta meritu izugarria dauka. Baina hor daude gazteak, Mikel Markez, Hertzainak lehen... Zuk lore bat hartzen baduzu menditik, lorea akatzen duzu, baina hazi pila botatzen ditu, eta hortik beste ehun lore aterako dira».


Oteizari buruzko erreferentzia ez da kasualitate hutsa izan. Estimua handia baitio Gorritik oriotarrari. «Oteiza ez da artista, jeinu bat baizik. Euskaldunoi ekarri digu zer garen jakitea. Nik dakidan apur hori, 500 urtetik honakoa, azal dezaket eskulturaren bidez, baina Oteizak duela hamar mila urtetik honakoa azal dezake hori. Bere eskultura ez da lorategi batean jartzekoa, informazioa kristorena daukalako, maisu bat delako. Lehendakari bat da. Gero, nola haserretzen den eta, horrekin ez nago konforme, baina hori da ume bat delako, 87 urteko ume bat. Adibidez, 'Quosque tandem...!' irakurri nuenean, nere burua irakurri nuen. Eta opari bat egiten baldin badut, hori egiten dut. Igoal 20 'Quosque tandem...!' oparitu ditut. Neretzako jeinu bat da, Picasso edo Miguel Angel izan ziren bezala, eta Euskal Herriak asko zor dio».

Eta asko zor, halaber, Aralarri. Maillope erakustoki eta Aralar

**L**ana bukatzen duen bakoitzean itxafueroa botatzen du herrian, barruan sentitzen duen «emozioarengatik», berak dioenez.

klaustroa, Euskal Herriko historiaren klaustroa Gorritirendako. «Aralarrera joaten zara eta ikusten dituzu lehendabiziko aztarnak, duela 5.000 urtekoak hor daudela. eta horrelako emozioa ematen dizu... Nik beti pentsatzen dut, trikuharriak eta hango gauzak ikusten ditudanean: 'Hainbeste urte historian, eta zapalketa eta borroken ondotik, eta hemen gaude, euskaraz!' Gauza handia da hori». Oso filosofia berezikoaren jabe, filosofia bera berarendako zer den galdetzen bazaio, galdera ere halakoa du: «Maitasun barruan bizi, eta zuk daukazu apur hori eman. Zeren eta nik dakidan hori ez da nirea. Ni oso aberatsa naiz, ez diru asko dudalako, baizik eta duela hamar urte baino gehiago dakidalako. Aberastu egiten naiz jakitearekin».

Aberastu, beti gehiago jakin. Horregatik dio eguneroko bizitzan dagoela erakusketa interesgarriena, eta horregatik, duela gutxi Granadan egon zenean, kaleek erakarri zuten gehien. «Euskal Herria kale bat da, Granada beste bat, eta Normandia beste bat. Horregatik, gero eta harreman gehiago, orduan eta gehiago ikasten duzu. Euskaldunok aurrera joateko ezin dugu ezer mugatu, eta ikasi egin behar dugu besteen bizitza eta besteen lana egiteko modua. Baina haiek ere ikasi behar dute guk nola lan egiten dugun, gure bizitza nola den eta gure lana nolakoa den».



Nafarroako taldekako txapelketako hirugarren ihardunaldiko partida, 1994ko urriaren 29an jokatu.

Miguel Angel Hernandez, 1.855 ELOkoa (Iruñeko Casco Antiguo)-Joaquin Antunez, 2.235 ELOkoa (Iruñeko Anaitasuna).


1.e4,d6; 2.Zf3,e5; 3.d4,Zd7; 4.Ac4,De7; 5.Zc3. Beltzen garapena astiroago doa. Alfilak oztopatuta dituzten bitartean, txurien ia pieza guztiak daude jokoan. 5...c6. Beharrezkoa, 'Zd5' galarrazteko. 6.0-0,h6; 7.Dd3,g5. Defentsarik onena eraso omen da. Erregea erdian gera daitekeenez, arriskutsua. 8.e5,e5; 9.h3,Zb6; 10.Ab3,g4; 11.g4,Ag4; 12.Zh2,Zf6; 13.f4,h5; 14.e5,De5; 15.Af4,Ac5 xa; 16.Eh1,Dd4; 17.Ag5,bZ-d7; 18.e5,Zd5. Txurien presioak errakuntza behartu du. Peoi bat galduko dute beltzek.

19.Zd5,d5; 20.Ad5,f5. 'De5' egin izan balute, 'aG-e1' etorriko zen. 23... Ge8; 24.c3. Ikus Koadroa. Alfila defendatzea ezinezko lana bihurtuko da. 24...De5; 25.Af4,De6; 26.Dc5 xa, Ef7; 27.a4,Eg6; 28.Zf3,h5; 29.aG-e1,Df7; 30.Dd6 xa,Eh5; 31.Ge8,De8; 32.Df6,Dg8; 33.a5,Zd7; 34.Dd6,h3; 35.g3,Dc4; 36.Gf2,Zc5; 37.Df6,Dg8; 38.Ad5,Ze4; 39.Af7 xa. Matearen aurrean, beltzek burua makurtu zuten. Posizioa gehiegi irekitzen saiatu ziren, txuriek jokoan pieza gehiago zutenean.

## Nere aitona

L arunbat gau ilun eta euritsu honetan ailegatu naiz nere aitona-amonaren etxe zahar eta ondo kontserbatu honetara. Mendi txiki baten gainean dagoen herri aldapatsu bat da Sesma, non bizi diren nere aitona-amonak. Etxearen ate marroi eta garbia ireki bezain laister han aurkitu dut aitona.

Aurpegi zabala du oso eta bere bekokia hain da handia ezin pilota partida



Asier Arana  
(BARAÑAIN)

da eta oso motza. Ile beltz orraztuen ile urdinak ateratzen hasi zaizkio.

Bere behatz lodietan ikusten da baratzan lan egiten duela eta hankak futbol jokalarit batenak baino sendoagoak dira.

Herrietan igandetan eramaten den arropa darama: alkondara marradun bat, txuri eta urdina; praka grisa zabalak eta espartin ilunak. Nahiz eta gorputz indartsu, potzolo eta pantzaduna izan, oso gozoa, eskurakoi, zentzudun, otzan eta barea da. Oso langilea da eta egunero



bat jokatu ahalko litzatekeen hain zimurturik ez balego. Bekainak nahiko lodi eta aldendurik dauzka eta beltz ilunaren artean ile beltzak agertzen dira. Hain dira berde bere begiak ze zelai bat diruditen. Bere sudurra luze eta oso handia da, agian borobil bat osatzen duten ezpain finak estaltzen dituen.

Jadanik hortz batzuk falta zaizkio nahiz eta besteak elurra bezain txuri eduki. Bere masailak haizerik gabeko puxika gorri baten antzekoak dira eta kokotsaren erditik marra arraro bat igarotzen zaio. Belarri lodiak ditu obulo handiekin. Bere lepoa berrehun urte dituen zuhaitz baten enborra bezain lodikotea

bere baratzara edota beste batzuei laguntzera joaten da. Alai da eta hirurogeitazortzi urte izan arren oraindik mantentzen du umore ona. Askotan bere ahots latzarekin kontaktzen digu txikia zenean eginiko zenbait bihurrikeri. Nere ustez bere izaerak oso ongi isladatzen du bere ezizen familiarra: 'El manso'.

## Historiaren gibealeko ataria

Historiak baditu bi sarpide. Sarpide Nagusitik gauza gogoangarri oro sartzen dira. Gibealeko ataritik, atzendu egiten diren gauza guztiak. Iruzkun da Xulapaingo herri erori bat, Erdi Aroan ere despulatua. Herri erori guztiek istorio bera daukate, despulatze horren zergatiak azaltzeko. Ustekeria hutsa izaten da.

Izan ere, izurri batek jota herri baten biztanle guztiak hil ziren, bat kenduta, eta hondar biztanle horri laguntza eman zion ondoko herriak. Laguntza ez zen nolana hiko izan. Labean sartu eta endaiatz ematen zioten bazkaria. Halako batean, osasun egoera ikusita, erre egin zuten. Mesede horren truke, azken biztanleak herri eroriaren ondasun guztiak oparitu zizkien

bere okin laguntzaileei. Iruzkun gaur egun Ollakarizketa herriarena da. Markalainetik ikusita, Egiluzeta muinoz bestaldean dago Iruzkun.

Txikia nintzelarik, muino horren gainean ari ginen belarretan, animalezko bero egiten zuen udako atsalde batean. Halako batean jende tropa eder bat ailegatu zen Iruzkuna. Eta ailegatu bezain pronto, aitzurreak eta palak koxtetatik atera eta lurra zulatzeari ekin zioten.

Haurrok galdetu genuen ea zertan ari ziren beheko lagun haiek. Ez zigun inork erantzun. Herrian ere saiatu ginen afera argitzen, baina alferrik. Gure niniburua zela eta, altxor izkutuetan pentsatzen hasiak ginen. Iruzkun

JUANXO URDIROZ



**Ez usteak  
zure atean joka**

**Labean sartu eta  
endaiatz ematen zioten  
bazkaria Iruzkungo  
azken biztanleari.  
Halako batean, osasun  
egoera ikusita, erre  
egin zuten.**

nen Historiaren Gibealeko Atarietako bat dago. Atzendu beharreko gauzak Historian sartzeko sarpideetariko bat. Ez ziren altxor izkutu baten bila etorriak, bere senideen gorpuen bila baino. Guda garaian Ezkaba gotorlekutik alde egin, eta Iruzkunen ajustiziatuak izan zirenen gorpuak. Kanposantuan, lur bedeinkatuan hezur horiek sartu baino ez zuten nahi.

Geroztik, askotan pasatu naiz handik, eta han gertatu zena gogoangarria zela iruditzen zitzaidan. Saiatu egin naiz irudikatzen pasadizu horren dramatikotasuna. Gehienak Erriberakoak ziren, bistak ematen duen guztian mendirik gabeko lurralde batekoak. Ez zuten Iruzkun herriaren berrikeri. Egia esan, ez zuten ezta Ollakarizketa, Markalain edota Niuin herrien ez erorien berrikeri ere. Eta

mendiek zeharkatzen duten zulo hartan esan zioten adio bizi honi. Orain iruditzen zait han gertatu zena ez dela gogoangarria. Mundu honetan Iruzkun aunitz dira. Iruzkunetz bete-beterik dago mundua, egia esan.

Eta zergatik iruditzen zaidan ez dela gogoangarria; bada, gizakioi irabazleen joan-etorriak baino gustatzen ez zaizkigulako. Heroiak, heroien dama galantak, heroien izen miresgarrien ezpatak, txakurrak, lurrinak, soinekoak eta abar. Eta galdutako gudak bakarrik aipatzen dira ozenki, guda berri bat irabazteko asmotan dabilenean.

Iruzkunen borda bat baino ez dago. Arteak eta ametzak. Ametzak esan dut, haritzaren senideak, ez ametsak, gogoan baino bizi ez diren irudiak.

**E**z da gauza bera eskuekin jatea eta jakiak eskuz prestatzea. Eskuekin jaten dutenek seguru asko ez dute inoiz elkarerik sortuko. Janariak eskuz prestatzen dituztenek, aldiz, duela urtebete elkartea osatu zuten, eta joan den ostiralean beren burua jendaurrean aurkeztu zuten. Nafarroako Artisanu Janariak elkarteak orotara 15 famili-enpresa biltzen ditu bere baitan; eta xede nagusi bakarra dauka, kalitatezko produktuak zabaltzea merkatuan.

## Artisanu janariak

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑEA

Nafarroan egiten diren kalitatezko artisanu produktuak bultzatzeko xedeaz, 1993ko udazkenean Nafarroako Artisanu Janariak izeneko elkarteak sortu zen. Cederna-Garalur eta Nafarroako Komertzio Ganbara izan ziren elkartearen aitzindariak, eta Europako Batasunaren sostengu ekonomikoa izan zuten estreinako urratsak emateko orduan.


Hasiera batean, elkarteak Cederna-Garalurren lan-eremuan besterik ez zen hedatu, hau da, Nafarroako mendialdean. Gauzak horrela, bultzatzaileek deialdia egin zutelarik, janariak artisanuaren eran prestatzen dituzten eskualde horretako zortzi enpresak elkarteko bazkide izateko erabaki zuten. Geroago, Nafarroa osoan izen oneko beste hainbat artisanu bazirela ikusirik, lan-eremua zabaltzea erabaki zuten, eta hasiera bateko zortzi enpresa horien gibeletik beste zazpi bat egin zuten ekimenarekin.

Egun elkarrekin orotara hamabost famili-enpresa biltzen ditu bere baitan. Horietatik seik gazta, mamia eta bestelako esne-produktuak egiten dituzte, hain zuzen ere Rietzuko Ardia, Etxarriko Bikain, Uztarrozkoko Ekia, Iruñeko Goshua, Burgiko Larra, Sunbillako Lizun eta Orreagako Orreaga enpresek; hestebeteak, pateak eta ahate konfiteak prestatzen dituzte Arbizuko Arbizu, Bianako El Bordon, Berako Errotazar, Burgeteko Etxenike eta Burgeteko Etxenike enpresek; Eltsoko Erlarok eztiak biltzen du; Lekarozko Larraldeak sagardoa ekoizten du, eta Iruñeko Baines likoreak ditu langai.

Lau ezaugarri elkartzen dituzte enpresa horiek guztiak. Lehenik eta behin, jakina, elkarteko kideek eskuz ekoiztu behar dituzte produktuak. Zenbait makina erabiltzea onartzen da, baina ekoizketan pausorik garran-

**M**erkatuak produktu ezberdinak eskatzen ditu, marka berezia dituztenak. Bada merkatuan sektore handi bat kalitatea eskatzen duena».

tzitsuenak halaberrez eskuz eman behar dira. Bestalde, enpresariak aldi berean artisanu izan behar du, hau da, enpresariak zuzenean hartu behar du parte ekoizpen prozesuan, eta bere gain hartu behar du ekoizpena aurrera ateratzearen zama. Halaber, enpresaren egiturak familiara izan behar du. Asko jota familiara partaideak ez diren hamar lagunek egin dezakete lan enpresan. Azkenik, higiegi eta osasun baldintzek egungo lege araudia bete behar dute. Lau ezaugarri horiek osatzen dute, hain zuzen ere, 'artisanu janari' izena arautzeko maiatzaren 23an karrikatutako 103/1994 foru



Ahateki ekoizleak eta gaztagileak dira nagusi elkartean.

dekretua, eta elkarrekin izen horren jabe izateko eskatzen die elkarteko bazkide izan nahi duten enpresei.

### AZPIEGITURA ETA PROMOZIOA

Jose Maria Hualde elkarteko lehendakariaren arabera, elkarrekin enpresa horientzat guztientzat hutsune garrantzitsua betetzen du. «Orain arte isolaturik egon dira, eta horrela ez zeukaten beren interesak babesterik. Guk lan horretan lagunduko diegu. Esate baterako, badago jendea kalitatezko produktu bat egiteko kapaz dena, baina ez, aldiz, enpresa antolatze edota promozioa lantzeko. Guk hori guztia egiten

lagunduko diegu».


Gauzak horrela, elkarteko bazkideen geroa oparoa izanen dela uste du lehendakariak. «Bazkide guztiak gazteak dira, hala enpresariak nola enpresak berak». Hori dela eta, sektorea mardultze bidean dela iritzi dio. «Merkatuak produktu diferentziatuak eskatzen ditu. Bada merkatuan sektore handi bat kalitatea eskatzen duena, eta kalitatea ez bakarrik osasun baldintzei dagokienez, baita ere kalitate sentsorialari, zaporeari eta abarri dagokienez. Guk eskaintza egin dugu, eta eskaera handia zegoela ikusi dugu».

Mardultze bide horretan bi motatako laguntzak eskainiko

dizkie elkarrekin bazkideei. «Batek batzuei azpiegitura egokia osatzen lagunduko diegu. Batek promozio bateratua egin dugu». Dena dela, bada hor beste hainbat tokitan ageri den arazo latza, sos falta alegia. «Diru publikoekin sostengu egitura sendoa osatu nahian gabiltza, eta horretarako Administrazioarekin hitz egiten ari gara. Diru hori lortzen dugularik, ekintza komertzial bateratuak egiteko parada ere izanen dugu».

Hori lortu arte, elkarrekin ezin izanen du nahi adina marduldu bazkideen kopurua. Zenbait artisanu janari, mermeladak eta sendabelarrak esaterako, orainoz ez dira elkartean sartu eta, bes-

### NAFARROAKO PRODUKTU NATURALAK



**J**anari artisanu enpresak orain arte isolaturik egon dira, eta horrela ez zeukaten haien interesak babesterik».

talde, bada jadanik elkartean sarturik dauden alorrek lantzen dituzten beste artisanu batzuk. «Jendaurrean geure buruaren aurkezpen ofiziala egin dugunez, aurki bazkide izateko eskaera andana jasotzea espero dugu. Hori arrisku handi samarra izan daiteke, ez baikaude horretarako prest. Bazkide berriak hartzen baditugu baina bazkide horiei behar dituzten erantzunak emateko gai ez bagara, puztutako puxika besterik ez gara izanen».

Bien bitartean, elkartean sarturik dauden hamabost enpresen produktuak kalean dira, merkatuan. Dagoeneko erosleak horiek besteetik bereizterik eduki dezaten etiketa berezia prestatu dute, baina enpresa guztiek ez ei dute etiketa berdina erabiliko. «Kontua da gurekin lanean ari diren enpresa batzuek jatorri izena dutela. Gaztagile batzuek, esate baterako, Idiazabal izena dute, eta beste batzuek Erronkari. Hori ez dute gure etiketa oso agerian jarriko, haien izenak jadanik oso ongi bereizten dituelako gainontzeko gazteetatik. Hori bai, jatorri izenik ez dutenek oso agerian jarriko dute etiketa, finean beren helburua gainontzekoetatik bereiztea baita, bestelako produktu bat dela erakustea alegia».

# «Literatur kritika endogamikoa da»

A.BARANDIARAN / IRUÑA

‘De brumas y de veras’ Espainiako kazeta nagusietan egiten den literatur kritikari buruz liburua argitaratu du Victor Moreno irakasle eta saiakera egileak. Autoreraren arabera, analisi sistematikoa baino gehiago hainbat kritikarik beren lana egiteko manerari buruz hurbilpen kritikoa da. «Kritika endogamikoa da»

harreman zuzena jatorrizko iturriekin. Bitartekariak dardenean liburuan ez dauden esanahiak eranstean dira, eta horrek kritikarien menpe jartzen du irakurlea. Hala ere, irakurleen artean segurtasun falta dagoen heinean, sinestazten digute gero eta beherezkoagoa dela kritika.

**EGUNKARIA.**— Uste duzu kritika horregatik, jendearengan dagoen segurtasun faltarenga-

honen inguruan sortu diren gauza batzuk. Adibidez, gaur egungo kritika berria da, merkadotekniaren produktua delako. Orain liburua kontsumo-produktu bat da, eta publikitate egin behar da, eta interesak daude, jakina.

**EGUNKARIA.**— Bada kritikari onik?

**MORENO.**— Bai, bada, jakina. Kritikari ona da irakurlea erakartzen duena, eta horretarako

arrandioso eta hutsal horretatik.

**EGUNKARIA.**— Liburuaren hasieran konparaketa egiten duzu nazionalismoaren eta kritikaren artean. Zergatik?

**MORENO.**— Badira kritikari eta idazleak kritikari buruz ari ez direlarik nazionalismoaren aurka jotzen dutenak, oso itxia dela, batere ona ez dela, eta abar. Eta haiek ez dira konturatzten leinu itxia dela baraiena ere, hor ez dagoela inor sartzetik. Beraz, askoz ere okerragoa iruditzen zait kritikarien eta idazleen ‘nazionalismoa’ gizartearena baino.

**EGUNKARIA.**— Kritikari k egingo diote zure liburuari?

**MORENO.**— Badakit liburua Madrilera heldu dela, eta kritikari sonatu batzuen eskuetan dagoela. Erantzunak oso desberdinak izan daitezke: isiltasuna; liburuaren kritika lasaia; edota kritika gogorra, min egitekoa. Nik ez daukat zer galdu, literaturaren mundu honetan sartuta ere, pelikula beste erretetik ikusten dudalako. Hau da, ni ez naiz honetatik bizi. Hala ere, iruditzen zait garrantzi gehiegizkoa ematen dietela euren buruei, nahiz eta idazleen lan gehienak ezinbestekoak ez izan, inolaz ere.

**EGUNKARIA.**— Honen guztia- ren soluziobidea poesia dela diozu liburuan. Zergatik?

**MORENO.**— Poesia esanahia delako, haragia, ‘hitza denboraren barruan’, Machadok esaten zuen bezala, ez besterik. Ez dago lorerik, oinarrizko hizkera da, gehiegizko hitz-jarioaren kontrakoa, alegia.

**EGUNKARIA.**— Liburu hone- tan —gehienetan bezala— hizkera ironikoa duzu. Distantziak markatzeko?

**MORENO.**— Nire liburuan azaltzen diren kritika batzuk bortitzak dira batzuetan, baina kritikariak esaten dutenarekin, ez kritikariekin beraiekin. Hau da, pertsona begirune handia diet beti, ideiei, berriz, mesprezu handia, ideia guztiak dirrelako mesprezagarriak. Batez ere jendaurrean azaltzen direnean, hain zuzen ere ideiak kritikatzeko daudelako.

## Victor Moreno


SAIOGILE



SOSLAIA

### Sanchez-Ostizi buruzko tesia

Azken hamabost urte hauetako literatur gehigarri guztiak ditu koardaturik, eta, beraz, kritikariak berarekiko kritika gutxi izango dutela dio, «gutxi izango baitira hain irakurle fidelak». Literatura eta irakaskuntza munduan errota, egun Miguel Sanchez-Ostiz idazle iruindarraren lanari buruz tesia egiten ari da Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Hala ere, bere benetako helburua irakaskuntzatik kanpo bizitzea dela azaldu du, eta duela gutxi hartu zuen eszedentzia irakurri eta idazteko erabili zuen batez ere. Asko irakurtzen omen du, baina azken 60 urteetan argitaratutakoaren artean bizpahiru aldiz berrirakurtzea merezi duten liburuak —maiuslanak— esateko eskatzen diogunean, esku bateko atzamarrak aski ditu.



Liburuak Madrilan esamesak sortu dituela dio Morenok.

OSKAR MONTERO

azaldu du Morenok, «ez baita egiten irakurleentzat, idazleentzat baizik».

**EGUNKARIA.**— Kritika baino gehiago kritikariak kritikatzten dituzu. Baina beharrezkoa dela uste duzu?

**VICTOR MORENO.**— Ruben Dariok esan zuen joan den mendean: ‘Ez dago kritikarik, kritikariak baizik’. Beraz, ezin da kritikarik egin ez dagoenari buruz. Liburuan kritikatzten da kritikariak liburuak aztertze-ko erabiltzen dituzten moduak, hau da, haiek egiten duten kritika galbahetik iragazten dut, uste dudalako irakurlea ez dutela kontuan hartzen. Bestalde, kritika ez zait beharrezkoa iruditzen. Ez, bitartekaritzarik ez delako beharrezkoa, eta bai

«Kritikari ona da irakurlea erakartzen duena, eta horretarako berrirakurketa askotan egin behar da».

tik, sortu dela?

**MORENO.**— Ez bakarrik horregatik. Kritika aspaldikoa da, eta XVIII. mendean jadanik idazle batzuek kritika horien kontra hitz egiten zuten. Ez da gauza berria, baina bai

berrirakurketa askotan egin behar da. Lehendabiziko irakurketa lehen amodioa bezalakoa da: ez zara ohartzen. Eta, horregatik, ezin da orduan kritikarik egin, ez delako erreflexiorik izan. Baina, egin, egin daiteke kritika ona.

**EGUNKARIA.**— Kritika lanak egin dituzu ‘Egin’ egunkarian hainbat urtetan. Zein da zure helburua?

**MORENO.**— Oso modu apal eta oinarrizkoan: ez diot irakurleari ziria sartzten. Ahalegintzen naiz irakurlea erakartzen, eleberri bat zergatik gustatu zaidan edo zergatik ez zaidan gustatu azaltzen, eta azkenean gomendatzen diot —edo ez— irakurketa. Hori bai, beti alden du naiz hizkera

## NISKIJATOR

© Zaldi Eroak

